## SARRERA

Erakunde profesionalen oinarrietako bat deontologia da, haientzat bide-erakusle baita, lanean bikaintasuna lortzeko eta jardunbide okerrak saihesteko.

Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak, autonomia erkidegoetako elkargo ofizialek onartutako kode deontologikoak ahaztu gabe, Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak 1999ko maiatzean onartutako kode deontologikoa erabili izan du, gida moduan, bere lanbide jardueran sortutako arazo etikoak eta deontologikoak konpontzeko.

Epaitegi Gorenak aitortu izan duen moduan, elkargo edo kontseilu profesionalen arau deontologikoetan elkargoek ezinbestean bete beharreko obligazioak daude, legeriak ahalmen publikoa ematen baitie haiei lanbide jarduera antolatzen, etika eta duintasun profesionala eta herritarren eskubideekiko errespetua zaintze aldera. Horrela, bada, diziplina ahalmena arlo profesionalean erabili behar da bikaintasun profesionalaren aurkako portaerak saihesten ahaleginduz, eta, horregatik, ahalmen horren eginkizuna prebentiboa eta didaktikoa da.

Azken urteotan, gure lanbide jarduerak agerian utzi du kode deontologikoa egokitu egin beharra dagoela errealitate sozial berrietara, informazio eta komunikazio teknologia berriei ematen zaizkien erabilera berrietara eta XXI. mendeko egoera legal berrietara. Horregatik, Gizarte Langintzaren Kontseilu Nagusiak Batzorde Deontologiko bat sortu zuen 2010eko maiatzean, arau deontologikoak eguneratu eta lanbide jardueraren errealitateara egokitzen hasteko.

Hurrengo urteko azaroan, Kode Deontologikoa berriaren zirriborro bat aurkeztu zitzaion Gizarte Langintzako elkargo ofizialen Kontseiluari, profesional guztien artean ezagutzera emateko eta, hala, onartuko zen dokumentuak ahalik eta babes handiena izan zezan.

Esan dezakegu elkargo profesionalak prozesu honetan izan duten parte-hartzea eredu garria izan dela: hirurehun ekarpen baino gehiago egin dizkiote Batzordeari eta, horrez gain, ekarpenetan egindako analisiak kalitatezkoak izan dira. Hori guztia etikako lan-taldeen edo horiek aukeratutako ordezkarien bidez egin da.

Prozesu hau amaitu da eta, orain, eskerrak eman nahi ditugu, egindako ekarpenengatik, asko balio izan digutelako, eta horietako asko dokumentu honetan agertzen dira. Dokumentu honek lor zitekeen kontsentsurik handienaren babesa du, gure erakundearen eta horren ingurunearen errealitatea sakon aztertu ostean egin delako. Hori zen lor zitekeen emaitza bakarra; izan ere, gizarte langintzan diharduten profesional guztiek gida moduan erabiltzen dituzten balio, printzipio eta arauak jasotzen ditu.

Hala, Kontseilu Nagusia arduratuko da kode honi behar duen hedapena eta publizitatea emateaz, gizarte langintzako profesionalek ez ezik erakundeek eta, oro har, gizarteak ere ezagutu dezaten, bikaintasun profesionala garantia bat baita haientzat guztientzat.

Gure êthosa zurkaizteko, esku asko behar izan ditugu. Kode hau gure bigarren bizilekua izan daiteke, gizarte langintzako printzipio, balio, eskubide, betebeharrak eta ezaupideez inguratuta bizitzea ahalbidetuko diguna.

**Ana I. Lima Fernández**  
**Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiko presidentea**

## AURKIBIDEA

### Atarikoa

#### I. Kapitulua. **Deskripzioa Eta Aplikazio Eremua**

#### II. Kapitulua. **Lanbideko Printzipio Orokorren Aplikazioa**

#### III. Kapitulua. **Gizarte Langintzako Langileen Eskubideak Eta Betebeharrak.**

##### A. Harremana Pertsona Erabiltzailearekin

##### B. Harremanak Beste Profesionalekin

##### C. Harremana Erakundeekin

#### IV. Kapitulua. **Konfidentziasuna Eta Sekretu Profesionala**

#### V. Kapitulua. **Batzorde Deontologikoak**

#### Azken Xedapena. **Indarrean Sartzea**



## ATARIKOA

Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak argitaratutako gizarte langintzako lehen kode deontologikoa 1999ko maiatzaren 29an onartu zuen Gizarte Langintzan Diplomatutako en eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak, egun hartan egindako ezohiko bileran. Harrezkero, ondorengo hamar urteetan, kodea sei aldiz inprimatu da.

Dokumentu honek aurreko testua eguneratu egiten du, Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak argitaratzen duen XXI. mendeko lehen Kode Deontologikoa delarik. Kodea prestatu da lanbideko printzipio etikoak eta deontologikoak eguneratu egin beharra zeudelako, errealitate sozial berriak eta lanbide jardueran eragin zuzena duten arauak kontuan hartuz.

Kodearen helburuen artean, hauek daude: erantzukizun profesionalak mugarritzea, ezaupide zientifikoak eta teknikoak ugaritzea, pertsona erabiltzaileekin eta beste profesionalekin nola jokatu definitzea, lehiaketa desleiala saihestea, lanbidearen izen onari eustea, zeregin profesionalak etengabe hobetzen jarraitzea, herritarrei eta erakundeei erantzutea, konfiantza faktore garrantzitsu eta erabakigarritzat hartzea harreman publikoetarako eta diziplina arteko harremanetarako oinarri izatea.

Aurreko dokumentuak gizarte langintzaren lanbidea gobernatzen duten printzipio etikoen eta irizpide profesionalen arau esparru bat ezarri zuen; oraingo kode honek, berriz, lanbideak ondorengo hamar urteetan topatu dituen zailtasunak gaintzea du helburu. Kode honek balio du gizarte langintzako lanbidearen konpromisoa berresteko, kontuan hartuz aurrerapen zientifiko-teknikoak eta gizarte langintzako profesionalen nahiz erabiltzaileen eskubide eta erantzukizun berrien garapena.

Gizarte langintzako profesionalaren zereginari dagokionez, haren eginkizunak izan behar ditugu kontutan:

Haien lana da gizarte zerbitzuak eta politikak planifikatzea, proiektatzea, kalkulatzea, aplikatzea, ebaluatzea eta aldatzea, taldeentzat eta komunitateentzat. Esku hartzen dute taldeetan eta komunitateetan, sektore funtzional askotan, hainbat ikuspegi metodologiko erabiliz, era askotako erakundetan egiten dute lan eta baliabideak eta prestazioak ematen dizkiete herriko hainbat sektoreri, maila mikro, meso eta makro sozialean. Eginkizun batzuk batera betetzen dituzte, esku hartzeko erabiltzen den metodologia nolakoa den.

Hortik ondorioztatzen da<sup>5</sup>:

Informazioa	Plangintza
Ikerketa	Gerentzia eta zuzendaritza
Prebentzioa	Ebaluazioa
Laguntza	Gainbegiratzea
Zuzeneko arreta	Irakaskuntza
Sustapen soziala eta gizarteratzea	Koordinazioa
Bitartekaritza	

Beren eginkizunak betetzeko, gizarte langintzako profesionalak gizarte langintzako tresna bereziak dituzte:

- Historia soziala. Dokumentu honetan, datuak erregistratzen dira, zehatz-mehatz: pertsonalak, familiari buruzkoak, osasunari buruzkoak, etxebizitzari buruzkoak, ekonomikoak, lanekoak, ikasketei buruzkoak eta erabiltzaile baten egoera sozio-familiarrarentzat aipagarriak diren beste edozein datu, eskaria, diagnostikoa eta ondorengo esku-hartzea eta egoera horren eboluzioa.

- Fitxa soziala. Gizarte langintzako euskarri honetan, sistematizatu daitekeen historia sozialeko informazioa erregistratzen da.

- Txosten soziala. Dokumentu hau irizpen tekniko bat da, gizarte langintzako profesionalak berak bakarrik idazten eta sinatzen duen agiria. Agiri honetan, teknikariak aztertu duen egoera azaltzen eta baloratzen du, labor-labor, eta, horretarako, behaketak eta elkarrizketak egiten ditu; irizpen tekniko bat ere ematen du; eta azkenik, proposamen bat egiten du, profesionalki esku nola hartu beharko litzatekeen adieraziz.

- Balorazio sozialeko eskalak. Tresna zientifiko bat da, une jakin batean egoera sozialeko identifikatzeko balio duena. Diagnostiko soziala prestatzeko erabil daiteke.

- Gizartegintzako proiektuak, esku-hartzearen diseinua. Hemen sartzen dira egoeraren ebaluazio-diagnostiko bat eta esku-hartzearen parte hartuko duten pertsonak, helburu operatibo, jarduera eta zeregin jakin batzuk, baliabideen erabilera, tenporalizazioa eta ebaluaziorako irizpideak.

Gizarte langintzako langileen jarduera definitzen duten premisa horiek kontuan hartuta, Kode Deontologiko bat prestatu da Espainiako gizarte langintzarako, lanbidean behar bezala aritzeko funtsezko dokumentua.

Arau deontologiko hauek balio dezatela gizarte langintzan diharduten langile guztien eskubideak eta betebeharrak biltzeko.

<sup>5</sup> Aho batez onartuak, Kontseiluak 2001eko irailaren 29an egindako ezohiko bileran.

**Kode Deontologiko hau gizarte langintza eta gizarte laguntzaileen elkargo ofizialen Batzar Nagusiak onartu zuen, 2012ko ekainaren 9an egin zuen ezohiko bileran**

## I. KAPITULUA. DESKRIPIOA ETA APLIKAZIO EREMUA

**Artikulu 1.-** Kode Deontologikoa honek espainiar estatuan gizarte langintzan diharduten profesionalen jarduna gidatu behar duten balio, printzipio eta arauen multzoa jasotzen du.

**Artikulu 2.-** Kode Deontologiko honetan jasotzen diren betebeharrak Zuzenbide Publikoko en titate bati dagokion ahalmen arauemailearen emaitza dira eta espainiar estatuko gizarte langintzako profesional guztiek bete behar dituzte, beren lanbidean dihardutenean, edozein dela ere lanbidean aritzeko erabiltzen duten modalitate profesionala edo kontratu mota. Betebehar hauek, halaber, dagokion elkargo profesionaletan erregistratutako sozietate profesional guztietan aplikatuko da, elkargoek eduki ditzaketen beste araudiak ahaztu gabe.

Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak, autonomia erkidegoetako kontseiluek, gizarte langintzako elkargo ofizialek (aurrerantzean, elkargoak) erabaki eta onar ditzakete beste arau deontologiko batzuk, Kode honetan jasotzen direnez gain, legez aitortuta dituzten eskumen eta lurralde esparrua errespetatuz eta, betiere, dagokion autonomia erkidegoko legeriak ahalmen hori aitortzen badie.

Ahalmen horren arabera emandako arauak Kode honetan jasotzen direnekiko osagarriak izango dira eta haiekin bat etorriko dira.

**Artikulu 3.-** Kode honetako arauen bat ez betetzea diziplinazko falta bat izango da, erakunde bakoitzaren estatutuetan tipifikatua, eta, ez-betetzea zuzentzeko, ezarritako zigor prozedura aplikatuko da.

**Artikulu 4.-** Elkargoek bere egiten dute helburu nagusietako bat bezala deontologia profesionala sustatzea eta garatzea, eta baita hura betetzen dela zaintzea ere, eta ahalegin berezia egingo dute Kode honetako xedapenak gizarte langintzako profesionalen eta erakundearen artean hedatzen. Era berean, proposatuko dute hemen azaltzen diren printzipioak unibertsitateetan Gizarte Langintzako ikasketak egiten ari diren ikasleek ikastea.

Elkargoak saiatuko dira Kode Deontologiko honetako arauak botere publikoen babesa duen ordenamendu juridikoan txertatzen. Kodeak, izan ere, Elkargoak eta lanbideak gizartearen aurrean duten konpromiso formal bat adierazten du, funtsezkoa delako etika, giza eta gizarte ikuspegietatik begiratuta zeresan handia duen lanbide batean aritzeko.

**Artikulu 5.-** Gizarte Langintza eginkizun hau duen diziplina zientifiko-profesionala da: “sustatzea gizarte aldaketa, giza harremanetan sortzen diren arazoaren konponbidea eta pertsonak indartzea eta liberatzea ongizatea handitzeko. Giza portaerari buruzko teoriak eta sistema sozialak erabiliz, gizarte langintzak esku hartzen du pertsonen bere ingurunearekin jarduten duten puntuetan”<sup>6</sup>.

<sup>6</sup> Gizarte Langileen Nazioarteko Federazioaren (GLNF) definizioa, Batzarrak 2000eko uztailean Montrealean egin zuen bileran emana.

**Artikuluia 6.-** Gizarte langilea da gizarte langintzako lanbidean ari den pertsona fisikoa, baldin eta horretan aritzea ahalbidetzen dioen Espainiako unibertsitatearen batean lortutako edozein titulu ofizial badauka betiere. Europako Batasuneko espainiarra ez den beste estatu batek emandako gizarte langintzako titulua baldin badu, titulua aitortzeko gutuna aurkeztu behar du, lanbidean Espainian jarduteko edo homologatzeko, titulua hirugarrenengo herrialderen batean lortutakoa bada.

## II. KAPITULUA. LANBIDEAREN PRINTZIOPIO ORKORREN APLIKAZIOA

**Artikuluia 7.-** Gizarte Langintza balio zatiezin eta unibertsal hauetan dago oinarritua: giza duintasuna, askatasuna eta berdintasuna<sup>7</sup>, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasota dauden moduan<sup>8</sup>; erakunde demokratikoak eta Zuzenbide Estatua. Horietan oinarritzen da lanbide jarduera, honako printzipio hauek onartuz:

Oinarrizko printzipioak:

- 1.- Duintasuna. Gizakia bakarra eta bortxaezina da eta bere baitan du balioa, bere interesekin eta helburuekin.
- 2.- Askatasuna. Gizakiak, giza ahalmenen jabe delarik, inork derrigortu eta eragotzi gabe egiten ditu bere egintza guztiak.
- 3.- Berdintasuna. Gizaki guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, bakoitzak bere berezitasunak eta bereiztasunak izanagatik bateragarriak direnak.

Oinarrizko printzipio horietatik, printzipio orokor hauek sortzen dira:

**Printzipio orokorrak:**

- 1.- **Errespetu** aktiboa gizakiari, taldeari edo komunitateari, esku-hartze profesional ororen ardatz gisa.
- 2.- **Gizakia onartzea**, gizakia den neurrian, bere berezitasun eta bereiztasun guztiekin.
- 3.- **Kategorizazioak gainditzea**, aurrez finkatutako eskemetatik sortutako kategorizazioak alegia.
- 4.- **Balio-judiziorik eza**, ez gizakiari buruz ez gizakiaren baliabide, motibazio eta beharrei buruz.
- 5.- **Banan-banan hartzea**, esan nahi baita, esku-hartze profesionala gizaki, talde edo komunitate bakoitzaren berezitasunetara egokitu beharra dagoela.
- 6.- **Pertsonalizatzea**, horrek eskatzen du onuraduna objektutzat ez baizik eta eskubideak eta betebeharrak dituen subjektu aktibotzat hartzea esku-hartzea egiten denean.

<sup>7</sup> Espainiako Konstituzioa, 1978koa, 1.1 art.

<sup>8</sup> Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1948koa, eta ondorengo zabalteak.

**7.- Gizakiaren promozio integrala**, gizakia bere osotasunean hartuz, izan ditzakeen ahalmenetatik hasi eta hainbat eta hainbat barne eta kanpo faktore zirkunstantzialak arte. Ikuspegi partzialak, aldebakarrekoak gainditu behar dira eta esku-hartze diziplinartekoak integratu.

**8.- Aukera eta eskubide berdintasuna**, ekitatea eta parte-hartzea, ziur izanda gizaki bakoitzak bizi kalitate hobea izateko gaitasunak dituela.

**9.- Elkartasuna**, baztertzan ez duen gizarte bat lortzen inplikatzeko eta gizakia baztertzan, estigmatizatzen edo azpian hartzen duten egoera sozialei aurre egiteko betebeharra.

**10.- Justizia soziala gizartearekin**, oro har, eta lanean dihardugun gizakiekin, jardunbide profesionala bideratzea gizaki, talde eta komunitateei garatzen laguntzera eta gatazka pertsonalak eta/edo sozialak eta haien ondorioak konpontzen laguntzera.

**11.- Giza eta gizarte eskubideak** aitortzea eta haiek zehaztea benetan aplikatzerakoan.

**12.- Autonomia**, profesionalak dituzten gaitasunekiko konfiantzan oinarrituz erabilia, kanpo bortxaketarik gabe.

**13.- Autodeterminazioa**, gizakiaren askatasunaren eta, beraz, haren egintzen eta erabakien erantzukizunaren adierazpide gisa.

14.- Erantzukizuna eta erantzukidetzak gizaki onuradunarekin, esku-hartze profesionalan parte hartzen duten subjektu guztiekin eta erakundeekin.

**15.- Koherentzia profesionala**, ezagutzak eta errespetatuz proiektua eta lan egiten duen erakundearen arautegia.

**16.- Lankidetzak profesionala**, aktiboa, konstruktiboa eta solidarioa onuradunarekin diharduten beste profesionalekin. Gauza bera gizarte langintzako profesionalen auto-antolaketaarako haien elkargo-egituretan.

**17.- Osotasuna**, horrek profesionalari eskatzen dio erabiltzailearekin duen konfiantzazko harremanaz ez abusatzea, bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko mugak ezagutzea eta bere posizioaz ez aprobetxatzea onura edo etekin pertsonalak lortzeko.

### III. KAPITULUA GIZARTE LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

#### A. HARREMANA PERTSONA ERABILTZAILAAREKIN

**Artikulu 8.-** Gizarte langintzako profesionalak konprometitzen dira Kode Deontologiko honetan jasotako printzipioak errespetatzera eta sustatzera.

**Artikulu 9.-** Gizarte langintzako profesionalak beren lanbidean aritzen dira ondorengo agiri hauetan aitortzen diren gizaki, talde edo komunitateen oinarritako giza eskubideak errespetatuz: Giza Eskubideen inguruko Nazio Batuen Deklarazio Unibertsala, Oinarritako Eskubideak eta Askatasunak Babesteko Europako Ituna (2007), Espainiako Konstituzioa (1978) eta nazioarteko komunitateak aitortu eta Espainiak berretsitako deklarazio eta itunetan jasotako gainerako guztiak.

**Artikulu 10.-** Gizarte langintzako profesionalak etikoki justifikatutako erabakiak hartzen dituzte, kontuan hartuz Printzipio Etikoei buruzko GLNF-aren Nazioarteko Deklarazioa, Gizarte Langileentzako Nazioarteko Irizpide Etikoak eta Kode Deontologiko honetan jasotzen diren gainerako guztiak.

**Artikulu 11.-** Gizarte langintzako profesionalak kontuan izaten dituzte intimitaterako, konfidentzialtasunerako eta beren jardun profesionalan informazioa arduraz erabiltzeko eskubideak, printzipio moduan, Kode honetako IV. Kapituluan agertzen den bezala.

**Artikulu 12.-** Gizarte langintzako profesionalak, beren lanbidean dihardutenean, gizaki, talde eta komunitateen indarrak eta ahalak identifikatzeko eta garatzeko helburuaz jarduteko ardura izaten dute, haien ahalmena indartzeko.

**Artikulu 13.-** Gizarte langintzako profesionalak bereizitasunak kontuan izaten dituzte eta, hala, ahalik eta arretarik hoberena ematen diote beren esku-hartze profesionala eskatzen duen orori, eskatzailearen nortasunaren arabera, diskriminatu gabe genero, adin, gaitasun, kolore, klase sozial, etnia, erlijio, irizki politikoa, joera sexual edo beste edozein faktorerengatik.

**Artikulu 14.-** Gizarte langintzako profesionalak pertsona erabiltzailearekin elkarlan estuan egiten dute lan, haiei parte-hartzera motibatzen diete eta behar den errespetua agertzen dute haien interesekiko eta esku-hartzean zerkusua duten gainerakoen interesekiko.

**Artikulu 15.-** Gizarte langintzako profesionalak, pertsona erabiltzaileen konpromisoa eta inplikazioa sustatuz, haien erantzukizuna ahalbidetzen dute erabakiak hartzerakoan eta beren bizitzari eragin diezaieketen egintzak burutzerakoan, hirugarrenen eskubideak eta interes legitimoak urratzen ez badituzte betiere. Ahalik eta gutxien erabiliko dituzte neurri hertsatzaile legalak; halako neurriak gatazka bateko aldeetako baten alde hartuko dituzte bakarrik, alde bakoitzaren arazoibideak sakon ebaluatu eta gero.

**Artikuluia 16.-** Gizarte langintza bateraezina da beste gizakiei terrorismoaren, torturaren edo indarkeriazko beste moduren batez erasotzen dieten gizaki, talde, indar politiko edo botere egiturei zuzenean edo zeharka laguntzearekin.

**Artikuluia 17.-** Gizarte langintzako profesionalak esku-hartze sozialean konprometitzen dira gizaki, talde edo komunitate ororentzat aurkitzera eta bermatzera aukera berdintasuna, baliabideak eskuratzera eta beharrak asetzeko laguntzera, bereziki egoera ahulenean edo sozialki desabantailazko egoera bereziren batean daudenentzat.

**Artikuluia 18.-** Gizarte langintzako profesionalak derrigortuak daude, pertsona erabiltzailearen ezaugarriak eta ulermen gaitasunak kontuan izanda, behar den informazioa ematera xedapen legalei eta administratiboei buruz eta haiei dagozkien eskubide, betebeharrak, abantaila, desabantaila, baliabide eta programei buruz. Ezaupide horiek oinarri hartuta ezartzen ditu harreman profesionalak pertsona erabiltzailearekin, prozesua, aurreikusitako emaitzak eta esku-hartzearen amaiera eguna.

**Artikuluia 19.-** Baldin eta, hainbat arrazoiengatik, pertsona erabiltzaileari dagozkion gaien inguruan adostasun batera iristea ezinezkoa bada, profesionala arduratuko da prozesu hobereenak aukeratzeaz, hartzen den erabakia haren interes, desio eta beharrekiko koherentea den erabakia hartzen dela ziurtatzeko.

**Artikuluia 20.-** Pertsona erabiltzailea beste zerbitzuren batera eraman behar baldin bada, gizarte langintzako profesionalak harentzat ahalik eta modurik erosoenean bideratuko du, esku-hartzeak etenik izan gabe.

**Artikuluia 21.-** Pertsona erabiltzailearen egintzak edo jarduerak berarentzat edo besteentzat benetako edo balizko arrisku larria (aurreikusten dena edo berehalakoa) baldin badakar, profesionalki jardungo da; behar izanez gero, taldeari baimena eskatuko zaio, autodeterminazio eskubidea badaezpada mugatzea dagokionari.

**Artikuluia 22.-** Gizarte langintzako profesionala prozedurak garatzen saiatuko da, pertsona erabiltzaileak portaera egokia izan dezan, elkarrekiko errespetua oinarri duen harreman profesionallean.

**Artikuluia 23.-** Gizarte langintzako profesionalari bere jardun profesionalak pertsona erabiltzailearekiko eman lekiokkeen boterea edo nagusitasuna hark ez du inoiz erabiliko bere probetxu, interes edo onurarako.

## B. HARREMANA BESTE PROFESIONALEKIN

**Artikuluia 24.-** Esku-hartzea beste profesionalekin batera egiten bada, gizarte langintzako profesionala behar den koordinazioaz arduratuko da, esku-hartzea egoki egin dadin bere eskumenen barruan eta bere lana egiten duen instituzio edo erakundearen esparruan.

**Artikuluia 25.-** Gizarte langintzako profesionalak pertsona erabiltzailearen onespina lortu beharko du esku-hartze profesionallean hirugarrengo pertsonak egon daitezten, hala nola, praktiketako ikasleak, prestatzen ari diren profesionalak, ikasten edo ikertzen ari direnak eta boluntarioak.

**Artikuluia 26.-** Gizarte langintzako profesionalak ezaupide, esperientzia eta ideien trukaketa sustatzen du beste diziplinetako lankideekin eta profesionalekin, guztiak aberastu daitezten eta esku-hartze soziala hobetu dadin.

**Artikuluia 27.-** Gizarte langintzako profesionalak eskuzabaltasunez jardungo dira orientatzaile eta gidari moduan beste lankideentzat, eta haiek eskatzen dietenari arreta handienaz erantzungo diote.

**Artikuluia 28.-** Gizarte langintzako profesionalak behar bezala erregistratu eta artxibatuko du eginiko dokumentazioa, beste profesional batzuegana transferitzeko edo bideratzeko eta, hala, jarduera profesionallean errepikapenik edo atzerapenik ez gertatzeko.

**Artikuluia 29.-** Gizarte langintzako profesionalak irizpide objektiboez eta zorrotzez, leialtasunez eta errespetuz ebaluatu behar du bai bere lana eta baita taldean egitea tokatzen zaiona ere.

**Artikuluia 30.-** Gizarte langintzako profesionalen arteko harremanak printzipio hauetan oinarritu behar du: profesionaltasuna, koordinazioa, lankidetzeta, elkarrenganako errespetua eta bidegabeko saihestea.

**Artikuluia 31.-** Lankideen eta beste profesional batzuen hautaketan parte hartzerakoan, gizarte langintzako profesionalak Kode Deontologiko honetan agertzen diren irizpide etikoak izango ditu kontuan. Nolanahi ere, aintzat hartu behar dira beste irizpide hauek: berdintasuna, diskriminazio eza, publizitatea, meritua eta gaitasuna.

**Artikuluia 32.-** Peritazioetan, gizarte langintzako profesionalak errespeturik handienaz jokatu du beste aldeko lankidearekin edo peritazioari dagokion lan profesionalaren egilearekin, izen on subjektiboa kendu gabe eta dagokion gaiaren alderdi teknikoetara mugatuz. Alderdi tekniko-profesionalak baino ez ditu landuko.

**Artikuluia 33.-** Gizarte langintzako profesionalak beste lankide batek Kode Deontologiko honetako arauak hausten dituela ikusten badu, idatziz jakinarazi behar dio dagokion elkargoari.

### C. HARREMANA ERAKUNDEEKIN

**Artikuluia 34.-** Gizarte langintzako profesionalak profesionalki inplikatu behar dute pertsona erabiltzailearen eskubideetan eta interesetan, hala behar denean agintaritza eskudunei eta elkargoei jakinaraziz, bere lanbidean diharduenean, edozein pertsonak jasan ditzakeen giza eskubideen urraketak, tratu txarrak edo edozein jarduera krudel, anker edo iraingarri, baita pertsonen egoera horietan bizitzea onartzen badute ere.

**Artikuluia 35.-** Gizarte langintzako profesionalak bere egingo ditu Kode Deontologiko honetako printzipioak eta eskubide eta betebeharrak sozialen sustapena bere lanbidean dihardueneko erakunde eta entitateetan, gizarte zerbitzuen kalitatea hobetzera bideratutako prozesuetan lagunduz, arduraz, gogotsu eta ahal duen neurrian.

**Artikuluia 36.-** Gizarte langintzako profesionalak lan egiten duen entitateko araudia, antolaketa eta funtzionamendua ezagutu behar ditu, entitatearen helburuak errespetatuz. Helburuak lanbidearen oinarriko printzipioen aurka baldin badoaz, osoz edo zatiz, profesionalak Kode honetan ezarritakoaren arabera jokatu du. Baldin eta lanarekiko menpekotasunaren eta lanbideko printzipioen artean gatazka sortzen bada eta, horregatik, pertsona erabiltzailearen aldeko printzipio etikoekin edo kalitatearekin edo eraginkortasun profesionalarekin bateragarriak ez diren ekintzak sortzen badira, profesionalak elkargo profesionalaren laguntza eta, behar izanez gero, babesa izango du.

**Artikuluia 37.-** Gizarte langintzako profesionalak parte-hartzea sustatu behar du bere zerbitzuak ematen dituen instituzio edo erakundearen gizarte politiken hobekuntzan, langintzan eta antolaketan, prozeduretan eta protokoloetan, kalitate arauetan eta kode deontologikoetan, antolaketak eta zerbitzuen eraginkortasunak eta efizienteagoak izan daitezen, pertsona erabiltzailearen eta komunitatearen mesedetan.

**Artikuluia 38.-** Gizarte langintzako profesionalak konfidentzialtasuna, sekretu profesionala eta lanbidearen oinarriko printzipioak zainduko ditu bere jardunaren berri lan egiten duen entitateko arduraduneri erregulartasunez ematen dienean, Kode honetan jasotzen den moduan.

**Artikuluia 39.-** Gizarte langintzako profesionalak lan egiten duten instituzio edo erakundearen arduraduneri jakinarazi behar diete enkargatu zaien esku-hartzea burutzeko nahitaez behar dituzten baldintzak eta baliabideak, eta baita beren zeregin profesionala galarazten dien edozein gauza ere.

**Artikuluia 40.-** Gizarte langintzako profesionalak autonomia izango du bere harreman profesionalerako eta interbentziorako behar dituen teknika, baliabide eta baldintza egokiak aukeratzeko eta aplikatzeko. Era berean, eskubidea izango du lan egiten duen erakundearen prestakuntza jasotzeko eta eguneratzeko aukera izatea bere jardun profesionala hobetuko duten gaietan.

**Artikuluia 41.-** Gizarte langintzako profesionalak, erakundearen eta talde lanaren inguruan, kontuan izango du dokumentazio profesionala konfidentzialtasuna errespetatu behar duela eta, beraz, bete behar duen helburu profesionalagatik eta profesionalerako bakarrik erabiliko dela. Behar diren segurtasun neurriak eskatuko ditu konfidentzialtasun hori bermatzeko.

**Artikuluia 42.-** Gizarte langintzako profesionalak ikuspegi globala eduki behar du bere zerbitzuak ematen dituen instituzioan edo erakundearen egin behar duen lanaren inguruan eta lehenetsunak ipini behar ditu, entitatearen misioarekin bat datozen irizpide objektiboen bidez eta errealitate sozialean antzemandako beharren arabera.

**Artikuluia 43.-** Gizarte langintzako profesionalak, diharduen erakundearen dituen eskumenak erabiliz, lankidetzaz erraztu behar du antzeko beste entitate eta erakundearen artean, haien politikak eta programak zerbitzu egokiak eta erabiltzaileen bizi kalitatearen hobekuntza sustatzen badituzte betiere.

**Artikuluia 44.-** Gizarte langintzako profesionalak zainduko du bere entitateak edo beste edozein erakundearen eskatuta eginiko txostenek konfidentzialtasuna errespetatuko dutela, betebeharrak eta eskubide orokor den neurrian. Nolanahi ere, txostena eskatzen duen entitateak debekatua edukiko du txostena zabaltzera, txostena eskatu zen helburu zehatzerako ez bada, hurrengo Kapituluaren ezartzen den moduan.

**Artikuluia 45.-** Baldin eta erakunde edo entitatearen batek etikoki jokatu ez eta pertsona erabiltzailearen eskubideak eta/edo duintasuna urratzen badira, gizarte langintzako profesionalak dagokion elkargo profesionalaren Batzorde Deontologikoari jakinaraziko dio egoera.

**Artikuluia 46.-** Gizarte langintzako profesionalak, pertsona erabiltzailearekiko duen erantzukizun nagusia kontuan izanik, behar diren aldaketak proposatuko ditu politika, prozedura eta jardueren inguruan, entitateek eta erakundeek horretarako dituzten bideak erabiliz. Baldin eta entitateek edo erakundeek profesionalaren erantzukizuna haren jardunean mugatzen badute eta pertsona erabiltzailearen eskubideak kaltetuta eta larriki urratuta jarraitzen badute, halako egoerak konpontzeko ezarritako dauden bideak erabiliko dira eta, hala eta guztiz, gauzak bere horretan jarraitzen badute, goiko instantzietara joko da edo interesen komunitate handienera.

**Artikuluia 47.-** Gizarte langintzako profesionalak kontzientzia eragozpenaren eskubideari hel diezaioke, gero eskubide hori erabiltzeagatik izan ditzakeen erantzukizunak bere gain hartuko dituela ahaztu gabe, baldin eta Kode honetan jasotzen diren oinarriko printzipioak kontuan hartuz esku-hartze profesionalarekin ari denean (pertsona erabiltzailearekin, beste profesionalarekin edo erakundeekin) arau edo agindu instituzionala aplikatzeak bere printzipio etiko, erlijioso edo moralen aurka joatea esan nahi badu.

## IV. KAPITULUA. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU PROFESIONALA

**Artikulua 48.-** Konfidentzialtasuna gizarte langintzako profesionalaren betebeharrak bat da eta pertsona erabiltzailearen eskubide bat, eta profesionalak bere interbentzio sozialean edozein modutan jasotzen duen informazio guztiei aplikatu behar zaie.

**Artikulua 49.-** Hauek bete behar dute sekretu profesionala:

- a. Gizarte langintzako profesionalak, edozein dela ere duten titulazioa, jarduera eremua eta lanbidean jarduteko modalitatea.
- b. Gizarte langintzako profesionalarekin elkarlanean ari diren profesionalak, baldin eta beren esku-hartzeagatik eta beren lanbidea kontuan hartu gabe informazio konfidentzialaren berri izaten badute.
- c. Praktiketara ari diren gizarte langintzako ikasleek eta, noizean behin gizarte langilearekin lanean aritzen diren boluntarioek.

Gizarte langintzako profesionalak diskrezioa eskatuko die laguntzaileei, administrazio langileei, ikasleei, boluntarioei edo beste edonori, duten lanbideagatik informazio konfidentziala erabiltzen badute, jakinaraziz halako informazioaren inguruan isiltasuna gorde behar dutela, ahaztu gabe isilik egoteko betebeharraren klausulak sinatu beharko dituztela, datuak babesteko araudiaren arabera.

**Artikulua 50.-** Gizarte langileen sekretu profesionala informazio konfidentzial orori aplikatuko zaio, berdin diolarik nola lortu den informazio hori. Informazio konfidentziala esaten zaio pertsona izanik pertsona erabiltzaileak ezagutzera ematea nahi ez duen informazioari. Informazioaren izaeraren inguruan zalantzak egonez gero, profesionalak gorabehera hori argitzeko eska diezairoke pertsona erabiltzaileari, ahal bada idatziz, edo aholkua eska diezairoke organo eskudunaren edo elkargoaren batzorde deontologikoari.

**Artikulua 51.-** Gizarte langintzako profesionalak pertsona erabiltzaileari jakinaraziko dio lortutako informazioa konfidentziasunez tratatua izateko eskubidea duela, eta sekretu profesionalaren muga berri ere emango dio.

**Artikulua 52.-** Sekretu profesionalaren betebeharrak ez du inolako denbora mugarik, jarraitu egiten du zerbitzu profesionalak ematen amaitu eta gero edo pertsona erabiltzailea hil ondoren.

**Artikulua 53.-** Gizarte langileak betebeharrak hauek beteko ditu informazio konfidentzialaren inguruan:

1. **Kalitatea:** Profesionalak esku-hartze soziala ahalik eta modu zehatzenean egiteko behar duen informazioa bakarrik eskuratuko du,

eskuratzerakoan eta eguneratzerakoan begirunea azalduz eta informazioa arduraz erabiliz.

**2. Onespina:** Informazioa pertsona erabiltzailearengandik lortzen denean, haren onespina lortuzat hartuko da esku-hartze profesionalaren baitan eskatze hutsarekin.

Pertsona erabiltzaileak bermatuta eduki beharko du esku-hartze profesionalerako eman behar duen informazioaren konfidentzialtasuna. Pertsona erabiltzaileari erakundeak lana nola egiten duen azaldu behar zaio, adieraziz une oro eskubidea duela onespina emateko, ez emateko edo kentzeko, noizbait horrelakorik erabakitzen bada, indarrean dagoen araudiaren arabera.

**3. Informazioa lagatzea eta konfidentziasunaz ohartaraztea:** Gizarte langintzako profesionalak, informazioa bidaltzen edo igortzen duen bakoitzean, hartzaileari adieraziko dio, idatziz behar izanez gero, informazioa konfidentziala dela eta eskatu den helbururako bakarrik erabili ahal izango duela, hala egin ezean hartzaileak erantzukizun bat izan dezakeelarik. Zuhurtziaren printzipioa izango da kontutan beti, informazioa maneiatzerakoan eta lagatzerakoan. Horregatik, alde batera utziko dira erabiltzaileen inguruko informazioari buruzko iruzkinak eta solasaldiak, espazio publikoetan, irekietan edo intimitaterik gabekoetan.

**4. Mugatzea:** Gizarte langintzako profesionalak mugatu egin behar ditu bere lankideei eta beste profesionalari ematen dizkien informazioak, guztiek bete behar duten helburua betetzeko behar-beharrezkoak diren elementuak bakarrik emango dizkie, sekretu profesionala errespetatuz.

**5. Legeria betetzea, datuen babesari buruzkoa, administratiboa edo lan egiten duen entitatekoa:** Gizarte langintzako profesionalak araudia beteko du, datuen babesari buruzkoa, administratiboa edo lan egiten duen entitatekoa, bereziki datu pribatuenei eta espedienteen zainketei dagokienez, konfidentziasun printzipioa eta sekretu profesionala bermatzeko.

**6. Helburua:** Lortutako informazioa eskatu zen helbururako bakarrik erabiliko da, nola eta pertsona erabiltzaileak bere onespina argi eta garbi ematen ez duen, legeriak baimentzen ez duen edo epaileren batek eskatzen ez duen.

**7. Zaintzea eta arduraz eskuratzea:** Gizarte langileak, berarekin lanean ari diren gainerako profesionalen edo bere lanaren onuradun direnen erantzukizunak ahaztu gabe, pertsona erabiltzailearen dokumentuak eta informazioak zaindu beharko ditu, eta dokumentu eta informazio horiek eskuratzea murriztu ere egin beharko du, berarekin lanean ari diren pertsonari bakarrik utziko die erabiltzen, konfidentziasun bermatzeko.

**Artikulua 54.-** Konfidentziasunaren eta sekretu profesionalaren salbuespena

Gizarte langintzako profesionalak pertsona erabiltzailearen bizia, segurtasuna eta osotasun fisikoa, psikologikoa eta soziala lehenetsiko ditu, behar-beharrezko

informazio konfidentziala esku-hartze profesionalarekin zerikusia duen ahalik eta pertsona talde txikienari emango diolarik.

Profesionalak sekretu profesionala hauts dezake, salbuespenezko oso egoera larria baldin bada, pertsona erabiltzailearentzako, gizarte langilearentzako edo hirugarrengozako aurreikus daitekeen berehalako arriskua dakarren egoera hain zuzen.

Dena den, profesionalak ez du sekretu profesionala hautsiko,

- a. Pertsona erabiltzaileak, haren ordezkariak edo oinordekoek sekretu profesionaletik libratu badute, idatziz.
- b. Legeak edo organo judizialen batek hala aginduta gai konfidentzialen berri emateko agindua jasotzen badu. Hala eta guztiz ere, dudak izanez gero eskatutako informazio konfidentzialaren mugen inguruan, aholkuak eskatuko dizkio dagokion elkargoko Batzorde Deontologikoari, eta planteatu ere bai aurrez edo judizioan edo espedientean bertan, agitari judizial edo administratiboaren aginduz betebeharrak horretatik salbuesteko.
- c. Delitu edo falta bat egiteagatik edo kode deontologikoa hausteagatik erabiltze batek salatzen badu, defendatzeko beste modu eraginkorragori kez badago betiere. Lekuko moduan agertzen bada, ordezkaria eska dezake, b) puntuaren arabera.
- d. Pertsona erabiltzaileari edo hirugarrengozko pertsonari modu bidegabean eta larrian eragin badietzaieke.
- e. Esku-hartze soziala taldean egiten denean horretarako behar den informazioari dagokionez, , berdin diolarik gizarte langileak izan ala ez. Ez badira, sekretu profesionala edo isiltasuna gorde beharraz ohartaraziko da.

**Artikulu 55.-** Baldin eta printzipioak aplikatzerakoan edo sekretu profesionala hausteko lehen aipatu diren kasuei buruz dudak edukiz gero, printzipio hauek aplikatuko dira hierarkikoki:

- a. Pertsona erabiltzailearen edo, bereziki, legearen babesa duten hirugarrengoen oinarrizko eskubideak babestea.
- b. Segurtasuna.
- c. Erabakitze askatasuna.

## V. KAPITULUA. BATZORDE DEONTOLOGIKOAK

**Artikulu 56-** Kontseilu Nagusiak Batzorde Deontologiko bat sortuko du eta barne erregimeneko araudi bat onartuko du harentzat. Araudian, batzordearen funtzionamendua, xedea eta eginkizunak ezarriko dira.

Nolanahi ere, Kontseilu Nagusiaren Batzorde Deontologikoaren eginkizunak izango dira:

- a. Prestakuntza eta dibulgazio jarduerak egitea, etika profesionalaren eta deontologiaren arloetan.
- b. Kontseilu Nagusiak hala eskatuta, eskumenen inguruko txosten orokorrak ematea.
- c. Etika eta deontologia profesionalaren arloetako gai zehatzen inguruko txostenak ematea, organismo edo erakunde publiko edo pribatuek eskatzen badiote, Kontseilu Nagusiaren iritzia jaso ondoren.
- d. Bere eskumenetan sartzan diren gaiei buruzko txostenak ematea, elkargo ofizialek edo kontseilu autonomikoei hala eskatuta.

**Artikulu 57-** Elkargoei beren batzorde deontologikoak sor ditzakete, beren estatutuek eta araudi autonomikoei xedatutakoa kontuan hartuta. Sortu ezean, Kontseilu Nagusiaren batzorde deontologikora jo dezakete, 1. kapituluak xedatutakoaren ondorioetarako.

**Artikulu 58.-** Batzorde deontologikoei deontologia profesionala zaintzeaz arduratuko dira, Kode Deontologiko honek xedatutakoaren arabera. Haien eginkizunak izango dira:

- a. Irizpide orientagarri orokorrak prestatzea, esku-hartze profesionalaren alderdi deontologikoen inguruan.
- b. Aholkularitza orokorra ematea eskatzen dieten profesionalei.
- c. Elkargoetako Gobernu Batzarrek edo kontseilu autonomikoei aurkezten dizkieten gai zehatzei buruzko irizpenak ematea. Aurkeztu organo horien ekimenez edo kolegiatuek eskatuta aurkeztuko dizkiete.

**Artikulu 59.-** Batzorde Deontologikoei beren irizpena eman dezakete Kode Deontologikoa ustez urratzeagatik irekita dauden diziplinazko espedienteetarako, zigorrak ezartzeko eskumenak dituzten organo kolegiatuek hala eskatuta.

Halakoetan, batzorde deontologikoei emandako irizpenak nahitaezkoak izango dira, baina ez lotesleak.



## AZKEN XEDAPENA.- INDARREAN SARTZEA

**LEHENA.**- Kode Deontologiko hau Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiaren Batzar Nagusiak onartu eta editatzen den lehen informazio buletinean argitaratuko da, gizarte langintzako profesionalek ezagutu dezaten, eta baita kontseilu autonomikoen eta elkargo ofizialen web orrietan ere, eta onartzen denetik 20 egunetara sartuko da indarrean.

